

# **EAEko Estatutu Berria:** **EKARPENA**

2018ko maiatzaren 24an



EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN  
**KONTSEILUA**

[www.kontseilua.eus](http://www.kontseilua.eus)

**Izenburua:** EAEko Estatutu Berria: EKARPENA

**Egilea:** Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua

**Argitaratze-data:** 2018ko maiatzaren 24a

**Ale kopurua:** Argitalpen digitala ([www.kontseilua.eus](http://www.kontseilua.eus) atarian eskuragarri)

# AURKIBIDEA

---

0. Sarrera .....	4
1. Gaur egungo Estatutua .....	6
2. Konparaziozko azterketa .....	9
3. Aurreko saiakera: 2004ko abendua .....	14
4. Paradigma berri bat: Protokoloa .....	16
5. Estatutu berrirako proposamena .....	18

# SARRERA

---

**E**usko Legebiltzarrak autogobernua delako eztabaidaren baitan EAerako Estatu berri baterako eztabaida-prozesua zabaldu du, eta nola ez, hizkuntzaren eta hizkuntza-eskubideen gaia nola kokatu berrikusteko aukera hau baliatu nahi du Kontseiluak.

Indarrean dugun Estatutua 1979koa da, eta, ondoren ikusiko dugun bezala, aipatu Estatutuak euskarari berezko izaeraz gain, estatus ofiziala esleitu zion gaztelaniarekin batera, eta hizkuntzarekin lotutako beste elementu gutxi batzuk ere jaso zituen. Horrela, itun horretan euskarari esleitutako estatusaren ondorio juridikoen ondorioz garatu da Euskal Autonomia Erkidegoan hizkuntzarekin lotutako araudi guztia, besteak beste, Euskararen Erabilera arautzeko 10/1982ko Legea bera.

la berrogei urte joan dira Estatutua onartu zenetik, eta gizartean hainbat aldaketa izan dira, bai eta hizkuntzaren eremuan ere. Egia da, bai, aurrerapausoak izan direla. Duela berrogei urte baino gizarte euskaldunagoa dugu orain, herritar euskaldun gehiago dago/gaude, orduan baino tresna eta espazio gehiago dugu euskaraz bizi ahal izateko, baina ez nahikoak. Eta, hor, zalantzarik gabe euskalgintzak, euskararen gizarte zibil antolatuak,

egindako ekarpena kontuan hartu beharrekoa da, eta, horrexegatik, euskararen gizarte zibil antolatuak etorkizuneko hizkuntza-araudian eragin zuzena izango duen Estatutuan ekarpena egitea beharrezkotzat jo du.

Izan ere, egoera gutxiagotuan dagoen hizkuntza batez ari gara, gutxiagotze-prozesuak pairatu dituen hizkuntza batez ari hain zuzen ere. Azken hamarkadotan normalizazio-bidean dagoen hizkuntza, baina oraindik ere egoera gutxituan. Hartara, lehen urratsa berdintasuna erdiestea izango da, herritarren arteko berdintasuna, eta bide horretan ekitatatea izango da ardatza.

Azken hamarkadotan egindako aurrerapausoek ataka berri baten aurrean jartzen gaituzte, eta horrela, jautzia egiteko aukera baliatu behar dela uste du Kontseiluak.

Egoera gutxituan dagoen hizkuntza baten normalizazio-prozesua lau zutaberen gainean garatzen da: corpus juridiko egokia, plangintzak, baliabideak eta herri-gogoia. Hartara, eztabaida honen amaieran sortuko den Estatutu Berriak hizkuntza-politikak garatzeari begira garrantzi handia izango du, besteak beste, euskaraz bizi nahi dugun herritarron eskubideak bermatzeko.

Gainera, hutsetik abiatzen ez garela badakigu. Batetik, oraingoak noraino eman duen ikusi dugu, bai eta gabeziak non izan ditzakeen ere. Bigarrenik, beste erkidego batzuetan garatu dituzten ereduak aztertzeo aukera dugu, eta horrek irakaspenak uzten dizkigu. Azkenik, gizarte zibilaren iritzi gaitua biltzen duen dokumentua ere badugu; hain zuzen ere, Europako hogeita hamar hizkuntza-komunitate baino gehiagoko ehundik gora eragilek European eta Euskal Herrian hizkuntza-politiken inguruan inoizko adostasun sozial handien izan duen iturburuko kodea: Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa.

Zalantzarik gabe, Protokoloaren printzipio nagusiak arras baliagarriak izan zaizkigu honako proposamen hau jorratzeo.

Kontseiluak hizkuntzaren normalizazioarekin zerikusia izan dezaketen araudi, erabaki edota neurriei egin ohi ekarpenak, eta oraingoan ere, euskararen geroari, edo hobeki esanda, gure komunitatearen geroari izugarri eragin diezaiokeen dokumentuan ere ekarpena egin nahi izan du. Ez dugu honako aukera hau galdu nahi izan, egin dezagun urratsa.

# GAUR EGUNGO ESTATUTUA

---

Eusko Legebiltzarrak zabalduko eztabaida, beraz, abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoa, Euskal Herriaren Autonomia Estatutua berritzeko izango da.

Hizkuntzari dagokionez, aipatu legeak honako elementu hauek zehaztu zituen:

- EAEko berezko hizkuntza euskara da.
- EAEko hizkuntza ofizialetako bat da euskara.
- Bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatuko da, aniztasun soziolinguistikoa kontuan hartuz.
- Ofizialtasuna arautuko da.
- Inor ezingo da hizkuntzarengatik diskriminatu.
- Hizkuntzen ezagutza ziurtatzeko neurri eta baliabideak bideratu eta arautuko dira.
- Erakunde aholku-emailea Euskaltzaindia izango da.
- Kanpoko eragileekin itun-hitzarmenak bideratzeko baimena.
- Magistratu, epaile eta idazkarien izendapenean euskararen ezagutza lehentasunezko meritutzat hartuko da.
- Justizia Administrazioaren zerbitzuko langilerian euskaraz jakitea lehentasunez balioetsiko da.

## **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA**

Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoa, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuarena

### **6.Artikulua:**

1. Euskara, Euskal herriaren hizkuntza propioa, hizkuntza ofiziala izango da Euskadin, gaztelania bezala, eta bertako biztanle guztiek dute bi hizkuntzok jakiteko eta erabiltzeko eskubidea.
2. Autonomia Erkidego osorako erakundeek, Euskal Herriaren aniztasun sozio-linguistikoa kontutan hartuz, hizkuntza bion erabilera bermatuko dute eta bion ofizialtasuna arautuko, eta beren ezagutza ziurtatzeko behar diren neurri eta baliabideak bideratu eta arautuko dituzte.
3. Inor ezin izango da hizkuntza dela-eta diskriminatu.
4. Euskarari dagozkionetan, Euskaltzaindia erakunde aholku-emaile ofizial da.
5. Euskara beste euskal lurralde eta gizatalderen ondare den aldetik eta erakunde akademiko eta kulturazkoak izan ditzaten harreman eta loturez gain, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoak eskatu ahal izango dio Espainiako Gobernuari lurralde eta gizatalde horiek kokaturik dauden edota bizi diren Estatuekin kulturazko harremanak bideratzeko itun-hitzarmenak izenpetu eta, hala badagokio, Gorte Nagusien aurrean, baimentzeko, aurkeztu ditzala, euskara zaindu eta bultzatze aldera.

### **35.Artikulua**

1. Magistratu, epaile eta idazkariak Aginte Judizialaren eta Aginte Judizialaren Kontseilu Nagusiaren lege organikoetan aurreikusitako moduan izendatuko dira, Euskal Foru Zuzenbidea eta euskara jakitea lehentasunezko meritu izango direla eta sorlekua edo herritasuna dela-eta salbuespenik egin gabe.
2. Autonomia Erkidegoari egokituko zaio, bere lurralde barruan, Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileria eta bere jardunerako baliabide material eta ekonomiko hornitzea, Aginte Judizialaren Lege Organikoan ahalmen hori Gobernuarentzat gorde dadin neurri berean eta langileria hornitzeko sistemetan Euskal Foru Zuzenbidea eta euskara jakitea lehentasunez balioetsiz.

Duela ia berrogei urte onartutako testuan, beraz, herritarren eskubideei dagokienez, oinarrizko elementuei erreparatu zitzairen. Batetik, estatusarekin lotutako artikulak jaso zituen, hain zuzen ere, euskarari berezko izaera eta estatus ofiziala esleitu zizkion. Bestetik, ofizialtasunaren ondorioz aitortzen diren oinarrizko beste eskubideak jaso zituen Estatutuak, hain zuzen ere, ezagutzeko eta erabiltzekoa. Hirugarrenik, diskriminazio-ezaren printzipioa bere egin zuen Estatutuak. Azkenik, justizia administrazioko langileriaren hizkuntza-gaitasuna

izan zuen hizpide. Kontuan izan behar dugu justizia administrazioarekiko harremanetan oinarrizko beste eskubide batzuk ere badirela, esaterako, babes judicial eragingarrirako edota defentsa-eskubidea.

Oso elementu orokorrak izan ziren, eta Estatutu horretan bildutakoa oinarri garatu izan da EAEn euskararen inguruko araudi guztia. Halere, ia berrogei urte igarota, nahitaezkoa da lege organiko berriak hizkuntzaren gainean garapen berria eta berritzailea jasotzea.



# KONPARAZIOZKO AZTERKETA

---

**E**uskal Autonomia Erkidegoan zabaldutako honako eztabaida hau eman izan da beste autonomia-erkidego batzuetan. Ondorioz, egun EAEkoa da Estatuan dagoen Estatuturik zaharrena.

Laburrean, hona hemen, beste autonomia erkidegoetako Estatutuek hizkuntzaren aferan biltzen dituzten elementu nagusiak:

## VALENTZIAKO ERKIDEGO

Apirilaren 10eko 1/2006 Lege Organikoa uztailaren 1eko 5/1982 Lege Organikoa, Valentziako Erkidegoaren Autonomia Estatutua aldatzen duena.

- Valentziera berezkoa.
- Valentziera/gaztelania ofizialak.
- Ezagutzeko eskubidea.
- Erabiltzeko eskubidea: Aktiboa zein pasiboa.
- Irakaskuntzan valentziera jasotzeko eskubidea.
- Irakaskuntza valentzieraz jasotzeko eskubidea.
- Bi hizkuntzen erabilera normala ea ofiziala bermatu.
- Bi hizkuntzen ezagutza bermatzeko neurriak.
- Hizkuntzarengatiko bereizkeriarik ez.
- Valentzieraren berreskurapenari errespetua.
- Legeak berezko hizkuntzaren aplikazio-irizpideak zehaztu.
- Lege batek hizkuntza bat edo bestea nagusi duten lurraldeak zehaztu.
- Lege batek berezko hizkuntzaren irakaskuntzatik eta erabileratik salbuetsi daitezkeen lurraldeak zehaztu.
- Bestelako arau, xedapen eta itunek izaeraren arabera bi hizkuntzetan argitaratu.
- Legeak bi hizkuntzetan argitaratu.

## GALIZIA

Apirilaren 6ko 1/1986 Lege Organikoa, Galiziako Autonomia Estatutua onartzen duena.

- Galiziera berezkoa.
- Galiziera/gaztelania ofizialak.
- Ezagutzeko eskubidea.
- Erabiltzeko eskubidea.
- Botere publikoek bi hizkuntzen erabilera normalizatua bermatu.
- Galizieraren erabilera sustatu.
- Galizieraren ezagutza errazteko bitartekoak.
- Hizkuntzaren bereizkeriarik ez.
- Magistratu, epaile, idazkari judizial... lehiaketa zein oposizioetan galizieraren ezagutza lehentasunezko meritua.
- Notarioak, jabego- zein merkataritza-erregistratzaileak, lehiaketa zein oposizioetan galizieraren ezagutza lehentasunezko meritua.

## BALEAR UHARTEAK

Otsailaren 28ko 1/2007 Lege Organikoa, Balear Uharteetako Autonomia Estatutua aldatzen duena.

- Katalana berezkoa.
- Katalana/gaztelania ofizialak.
- Ezagutzeko eskubidea.
- Bi hizkuntzen ezagutza bermatzeko neurriak.
- Bi hizkuntzen erabilera normalizatua eta ofiziala bermatu.
- Eskubideei dagokienez, berdintasun osora iristeko baldintzak sortu.
- Katalana berezko duten beste lurralde edo instituzioekin harremanak.
- Erabiltzeko eskubidea: Aktiboa zein pasiboa.
- Hizkuntzaren bereizkeriarik ez.
- Corpusa eta aldaerak babesa.
- Institutuzio aholku emalea corpuserako.
- Magistratu, epaile, idazkari judizial... lehiaketa zein oposizioetan galizieraren ezagutza lehentasunezko meritua.
- Notarioak, jabego- zein merkataritza-erregistratzaileak, lehiaketa zein oposizioetan galizieraren ezagutza lehentasunezko meritua.
- Beste autonomia erkidegoekin protokoloak sinatu.
- Estatuko gobernuari, gorteei... ondare-amankomuna gordetzeko lankidetzaren hitzarmenak eskatu.

## KATALUNIA

Kataluniako Autonomia Estatutua berritzeko uztailaren 19ko 6/2006 Lege Organikoa.

- Katalana berezkoa.
- Administrazio eta hedabide publikoetako erabilera normaleko eta lehentasunezkoa.
- Hezkuntzan irakasteko eta ikasteko erabiltzen den hizkuntza.
- Katalana/gaztelania ofizialak.
- Bi hizkuntzak erabiltzeko eta ezagutzeko eskubidea eta betebeharra.
- Neurriak hartu eskubideak egikaritzeko eta betebeharra betetzeko.
- Diskriminaziorik ez.
- EBn ofiziala izateko ekintzak abian jarri.
- Beste erkidegoekin lankidetzak.
- Aranera Araneko berezko hizkuntza.
- Aranera ofiziala.
- Bi hizkuntzetan egindako ekintza juridikoek balio eta eraginkortasuna.
- Herritarrek hauturako eskubidea, eta horrek instituzioak behartu.
- Justiziako erakunde guztiekin hizkuntza ofiziala erabiltzeko eskubidea, Kataluniatik kanpo bideratzen denean ere. Babesgabetasun / atzerapenik gabe.
- Magistratu, epaile, idazkari judicial... lehiaketa zein oposizioetan hizkuntza ofizialen ezagutza egiaztatu.
- Estatuko Administrazioko langileek Katalunian bi hizkuntzen ezagutza egiaztatu.
- Estatu mailako erakunde konstituzionalek eta justiziaren eremukoek katalanez idatzitakoak onartu eta tramitatu behar.
- Erabiltzaile / kontsumitzaile gisa ahoz eta idatziz hizkuntza ofizialetan artatuak izateko eskubidea.
- Irakaskuntza katalanez jasotzeko eskubidea, irakas hizkuntza izan behar du.
- Derrigorrezko hezkuntza amaitzean bi hizkuntzetan ahozko zein idatzizko gaitasun egokia izateko eskubidea eta betebeharra, edozein hizkuntzatik datozela ere. Bi hizkuntzen irakaskuntza presentzia egokia.
- Ikasleek haien hizkuntzarengatik bereiztuak ez izateko eskubidea.
- Sistemari beranduago sartzen diren ikasleek hizkuntza-laguntzarako eskubidea.
- Unibertsitateetan ikasle zein irakasleek ahoz zein idatziz hautatutako hizkuntza ofizialean adierazteko eskubidea.
- Aranen herritarrek aranera ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea, eta hizkuntza horretan artatuak izatekoa ere Administrazio Publikoetan.
- Justizia eremuko lan deialdietako azterketak hautagaiak nahi duen hizkuntza ofizialean.
- Katalunian plaza duten epaile, magistratu eta fiskalek katalanaren ezagutza egokia egiaztatu.
- Lekualdatze lehiaketetan katalanaren ezagutza modu berezitan baloratu.
- Justizia administrazioko eta fiskaltzako langileek ere hizkuntza ofizialen ezagutza egokia egiaztatu.
- Generalitateen eskumen osoa izango da berezko hizkuntzaren eremua: ondorio juridikoak, erabilerak...
- Notarioek eta erregistratzaileek bi hizkuntza ofizialen ezagutza egokia egiaztatu.

Nafarroako adibidea ez dugu jaso. Izan ere, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari 13/1982 Legeak gaztelaniari besterik ez dio ofizialtasuna aitortzen, eta euskarak eskualde euskaldunetan estatus ofiziala izanen duela esaten du. Horretaz gain, Legeak ez du beste ezer jasotzen hizkuntzen inguruan.

Horrela, beste autonomia erkidegoetako Estatutuak aztertuta, hona hemen jasotzen dituzten elementu interesgarrienak:

### **STATUSA**

- Berezko izaera.
- Ofiziala.
- Berezko hizkuntza lehentasuneko eta erabilera normalekoa administrazio eta hedabide publikoetan.
- Berezko hizkuntzaren aplikazio-irizpideak zehaztu.
- Berezko hizkuntza arautzeko eskumena.

### **BEREIZKERIARIK EZ**

- Hizkuntzarengatiko bereizkeriarik ez.

### **ESKUBIDEAK, OFIZIALTASUNA, BEREZKOTASUNA**

- Hizkuntza ofizialen erabilera bermatu.
- Herritarrei eskubide aktiboa eta pasiboa aitortu.
- Berezko hizkuntzaren ezagutza bermatu.
- Herritarren eskubidearen bermea bete behar bihurtzen da administrazioarentzat.
- Estatuko administrazioetako langileek hizkuntza ofizialen ezagutza egokia.
- Estatu mailako erakunde guztiek berezko hizkuntzan idatzitakoak tramitatu beharra.

### **JUSTIZIA**

- Fiskalak, magistratuak, epaileak, justiziako langileak... hizkuntza ofizialen ezagutza egokia derrigorrezkoa.
- Notarioak, erregistratzaileak ... hizkuntza ofizialen ezagutza egokia.
- Justizia eremuko lan-deialdietan azterketak hautagaiak hautatutako hizkuntzan.
- Justiziako erakunde guztiekin(erkidegotik kanpo ere) ahozko zein idatzizko arreta hizkuntza ofizialetan, babesgabetasun eta atzerapenik gabe.
- Legeria hizkuntza ofizialetan argitaratu.

## **HEZKUNTZA**

- Irakaskuntza berezko hizkuntzan jasotzeko eskubidea.
- Irakas hizkuntza berezko hizkuntza.
- DBH amaitzean bi hizkuntzetan ahozko zein idatzizko gaitasun egokia izateko eskubidea eta betebeharra.
- Sisteman beranduago sartzen diren ikasleek hizkuntza-laguntza.

## **KONTSUMITZAILE / ERABILTZAILEAK**

- Erabiltzaile / kontsumitzaile gisa hizkuntza-eskubideak.

## **LANKIDETZA-HARREMANAK**

- Hizkuntza partekatzen duten beste erkidego edo lurraldeekin harremanak.
- Estatuko gobernuari, gorteei... ondare-amankomuna gordetzeko lankidetzak hitzarmenak eskatu.

## **BESTELAKOAK**

- EBn ofiziala izateko ekintzak.
- Corpusari begirako erakunde aholku-emailea.

Horiek ikusita, egia da, bai, Euskal Autonomia Erkidegorako Estatutua berritzen ari den honetan, aukera interesgarriak daudela euskararen (eta euskaldunon eskubideen) gaia modu sendoagoan jasotzeko.

# AURREKO SAIAKERA: 2004ko ABENDUA

---

**A**zken urteotako historiari erreparatuz gero, egia da, orain zabaldu den prozesuak izan zuela duela urte batzuk antzekorik. Horrela, 2001ean Euskadiko Erkidegoaren Estatutu Politikoa definitzeko eta erabakitzeko prozesuari hasiera eman zion Eusko Legebiltzarrak, eta 2004ko abenduaren 30ean Legebiltzarraren gehiengoak alde bozkatu zuen. Halere, 2005eko urtarrilean Espainiako Kongresuan aurkeztu eta otsailaren 1ean atzera bota zuten.

1979koarekin erkatuz gero, hiru elementu berri txertatu zituen aipatu proposamenak:

- Diskriminazio ezaren ondorioz herritar guztien eskubideak errespetatu behar dira.
- Espainiako Estatuak euskara errespetatu, sustatu eta babestu beharko du erakunde-eremu guztietan, bai eta Europako Batasuneko zein nazioarteko foroetan ere.
- Hizkuntzen erabileraren politika, besteak beste, Euskadiko Erkidegoaren politika publiko eskusiboa izango da.

Orduan ere, Euskararen Gizarte Erakundeek KONTSEILUAK ekarpena egin zion proposamenari:

## **2004ko EUSKADIKO ERKIDEGOAREN ESTATUTU POLITIKOARI KONTSEILUAK EGINDAKO ZUZENKETA:**

1. Euskara, hizkuntza europarra, Euskal Herriko berezko hizkuntza da. Euskararen erabilera gizarteko maila guztietara hedatuko da.
2. Euskara ofiziala izango da eta lehentasunezko estatusa izango du. Era berean, Europako hizkuntza den neurrian, Europan ere ofiziala izateko urratsak egingo dira.
3. Herritar guztiek dute euskara ezagutzeko betebeharra eta erabiltzeko eskubidea. Hortaz, administrazioak belaunaldi berriak euskaldunak izango direla ziurtatuko duen hezkuntza sistema antolatuko du. Bide beretik, bitartekoak jarriko ditu euskara ez dakiten herritarrek euskara lehenbailehen eta doan ezagutu dezaten. Era berean, etorkinei ere, iritsi ahala, euskara ikasteko bidea emango zaie.
4. Gaur egungo egoera diglosikoak sortzen duen desoreka soziala gainditzeko epe eta helburu zehatzak izango dituen hizkuntz politika eta corpus juridikoa ezarriko dira. Corpus juridiko horrek, lehentasunez, euskara erabiltzeko eskubidea eta hizkuntz eskubideen urraketa gainditzea bermatu behar ditu.
5. Hizkuntz politika osoa aplikatuko da: sektore artekoa, eta Administrazio nagusitik hasi —autonomikoa nahiz estatuarena— eta Toki Administrazioerainokoa
6. Administrazioa eta haren zerbitzuak —baita estatus pribatua duten baina zerbitzu publikoa ematen duten enpresak ere— lehentasunez euskaldunduko dira, euskara zerbitzu eta lan hizkuntza izateko. Bide horretatik, kontratazio berri guztietan euskara ezagutzea beharrezkoa izango da.
7. Euskararen gizarte erakundeak instituzio aholku emaileak izango dira.
8. Hizkuntzari buruzko erabakiak burujabetza osoz hartuko dira.

Ikusten denez, Kontseiluak Estatutu Politikoan txertatzeko egiturazko berrikuntzak proposatzen zituen. Batetik, euskarari lehentasunezko izaera eman beharra. Bigarrenik, euskara ezagutzeko betebeharra eta horren ondoriozko neurri zehatzak belaunaldi berriei, helduei zein etorkinei dagokienez.

Hirugarrenik, administrazioa eta zerbitzuak lehentasunez euskaldundu beharra jaso zuen, hain zuzen ere, euskara zerbitzu eta lan hizkuntza izateko. Azkenik, hizkuntza-politikaz kanpo esku-hartzerik gabe erabakiak hartu ahal izatea ere jaso zuen.

# PARADIGMA BERRI BAT: PROTOKOLOA

---

**2016k**o abenduaren 17an, inoiz Europan egoera gutxituan dauden gizarte eragileek elkarrekin egindako ariketa handienaren ondorioak aurkeztu zituzten Donostian: Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa. Bartzelonan 1996an onartutako Hizkuntza Eskubideen Deklarazioa oinarri, Protokoloak herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko hartu beharreko 185 neurri biltzen ditu.

Bi dira, beraz, Protokoloaren indarguneak. Batetik, hizkuntza-eskubideen bermeari begirako neurri zehatzak; bestetik, hogeita hamar hizkuntza-komunitateko ehundik gora eragilek nazioarteko adituen babes akademikoarekin egindako

proposamena dela.

Hizkuntza-eskubideak modu integralean bermatzeko neurriak biltzen ditu, administrazio eta instituzio publikoetan, hezkuntzan, eremu sozioekonomikoan, onomastikan, hedabide eta teknologia berrietan eta kulturaren. Halere, horietaz gain, badira Protokoloaren printzipio nagusien atalean kokatuta dauden hainbat neurri eta irizpide. Neurri horiek erabat uztargarriak dira Autonomia Estatutuak jaso beharko lituzkeen printzipio nagusienekin. Horrexegatik, oraingo honetan, Kontseiluak ez du proposamen gisa testu artikulua bat mahai gaineratu. Aitzitik, Protokolutik eratortzen diren neurri eta irizpideak aurkeztu nahi ditu ekarpen gisa.



## HIZKUNTZA ESKUBIDEAK BERMATZEKO PROTOKOLOA (2016)

### ATARIKOA: SUBJEKTUAK

- Berezko hizkuntza.

### PRINTZIPIO OROKORRAK

- Hizkuntza-eskubideak.
- Hizkuntzagatiko diskriminazioa.
- Hizkuntzaren estatusa: ofiziala.
- Legeak.
- Neurri zuzentzaileak.
- Baliabideak.
- Neurri positiboak.
- Unibertsaltasun-printzipioa.
- Zehar-lerrotasuna.
- Hizkuntzaren arnaguneak.
- Memoria historikoa.

Protokoloa onartu eta gero, horren aurkezpena egin izan da hainbat Legebiltzarretako lehendakarien aurrean, besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroa, Katalunia, Valentzia, Galizia eta Korsika.

2017ko martxoaren 13an Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza eta Kultura Batzordean ere aurkeztu zuten Kontseiluko ordezkariak aipatutako dokumentua. Azpimarratu nahi genuke, Batzorde horretan parte hartzen duten alderdi politikoek interes handiz jaso zutela Protokoloaren aurkezpena, bai eta bere balioa

azpimarratu ere. Arrazoi horrengatik, praktikarako urratsa egiteko tenorea dela uste du Kontseiluak; eta horrexegatik, hain zuzen ere, aurkezpen hartan Protokoloa modu teorikoan aurkeztu bagenuen ere, oraingoan ariketa praktikoa egin nahi izan dugu. Hartara, Euskal Autonomia Erkidegorako Estatutu berrian bertan jasotzen diren printzipio horiek jasotzea litzateke horrenbeste eragilek adostutako proposamenari balioa emateko modurik eragingarriena.

# ESTATUTU BERRIRAKO PROPOSAMENA

---

**G**auzak horrela, Estatutu Berriari dagokionez hizkuntza-eskubideak estatutu-eskubideetan kokatu beharra aurreikusi, eta euskararen eremuan honako hauek jasotzea proposatzen du Euskararen Gizarte Erakundeen KONTSEILUAK, besteak beste, Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloaren printzipio orokorretan oinarrituta:

## ESTATUTU BERRIRAKO ELEMENTUEN PROPOSAMENA

### HIZKUNTZAREN ESTATUSA

- Euskara ofiziala da lurralde osoan.
- Euskara da EAEko berezko hizkuntza.
- Euskara da administrazioko erabilera normaleko eta lehentasunezko hizkuntza.
- Europako Batasunean hizkuntza ofiziala izateko ekintzak abian jarriko dira.

### HIZKUNTZARENGATIKO BEREIZKERIA

- Ez da hizkuntzarengatiko bereizkeriarik onartuko.

### EUSKARAREN SUSTAPENA

- Botere publikoek euskara babestuko dute eremu eta sektore guztietan, bai eta erabilera, ezagutza eta zabalkundea sustatu ere.

### EUSKARA ERABILTZEKO ESKUBIDEA

- Herritarrei hizkuntza-hautua bermatuko zaie, eta beraz, euskara erabili ahal izango dute instituzio, erakunde eta administrazio publiko guztiekin zein funtzio publikoak egiten dituzten erakunde pribatuekin ere. Erregistroak, notarioak eta justizia administrazioa ere bertan kokatuko dira.
- Neurriak hartuko dira eskubideak egikaritzeko eta betebeharrak betetzeko.
- Euskara erabiltzeak ez du babesgabetasunik eragingo, ez eta atzerapenik sortu ere.
- Erabiltzaile eta kontsumitzaile gisa ere hizkuntza-eskubideak aitortuko dira.
- Instituzio, erakunde eta administrazio publikoko langileek euskararen ezagutza-maila egokia egiaztatuko dute, bai eta EAEn kokatutako Estatu mailako erakundeetakoek, zein EAEn plaza duten epaile, magistratu, fiskal, notario eta erregistratzaileek ere.

## **EUSKARA EZAGUTZEKO ESKUBIDEA ETA BETEBEHARRA**

- Herritar guztiei aitortzen zaie euskara ezagutzeko eskubidea, bai eta betebeharra ere.

### **Derrigorrezko hezkuntza**

- Ikasleek irakaskuntza euskaraz jasotzeko eskubidea dute.
- Derrigorrezko hezkuntza amaitzen dutenean euskararen ahozko zein idatzizko ezagutza egokia izateko eskubidea eta betebeharra dute.
- Beranduago datozen ikasleek hizkuntza-laguntza jasotzeko eskubidea dute.

### **Helduen euskalduntzea**

- Euskara ikastea doakoa izango da herritar guztientzat.

## **LANKIDETZA-HARREMANEN GARAPENA**

- Hizkuntza partekatzen duen Nafarroarekin eta Ipar Euskal Herriarekin harremanak garatuko dira

## **JAURLARITZAREN ESKUMEN OSOA BEREZKO HIZKUNTZAREN EREMUAN**

- Berezko hizkuntzaren aplikazio-irizpideak arautzeko eskumena izango du Jaurlaritzak, kanpo eskuhartzerik gabe.

## **ERAKUNDE AHOLKU-EMALEAK**

- Euskararen gizarte eragileak erakunde aholku-emaleak izango dira.

## **HIZKUNTZA-ESKUBIDEEN BERMEA**

- Hizkuntza-eskubideek berme instituzionalak, normatiboak eta juridikoak izango dituzte.



[www.kontseilua.eus](http://www.kontseilua.eus)



[www.twitter.com/kontseilua](https://www.twitter.com/kontseilua)



[www.facebook.com/EuskararenKontseilua](https://www.facebook.com/EuskararenKontseilua)